

{ koaderno } Nerea Ibarzabal

«Konpraesanak»

Ez zait gustatzen arropak erostera joatea. “Erostera joatea” ez da “erostea”: kontsumitzaile gisa esnatzen zaren eguna da, gertuen geratzen zaizun hirira erromesaldia egiteko; hasieratik onartzen duzu, goizean zeren bila zoazen jakin arren, ez dakizula zerekin eta zenbatekin itzuliko zaren.

Alferra naiz konbinatzeko, prezio/kalitate ariketa konplikatuégia zait gehienetan, uneko modari buruz dentistaren itxarongelan irakurritakoa baino ez dakit eta egonezin izugarria eragiten didate dendetako usai- nek eta saltzaileen gehiegizko prestutasunak –zalantza- rik baldin badut neronek galdetuko dizut, egon lasai-. Alferkeria hau ederki datorkit, bide batez, nire antikon- tsumista jarreraz autokonbentzitzeko.

Baina izaten dira ba, egun batzuk, non denari su emango zeniokeen eta hutsetik hasi? Armairuarekin horixe bera gertatu zait oraingoan, iristen ez den uda- berriak, bizitzako ziklo alda- ketak –hau beti geratzen da ondo– edo auskalo zerk era- ginda. Amancio Ortegaren besoetara salto egin dut eta goiz oso bat pasatu dut kon- pultsiboki erosten gaizki or- daindutako eskuek eginda- ko arropa merkea –garestia balitz ezingo genuke kon- pultsiboki erosi, hortxe da- go koska-. Bulimia kontsu- mista, eta gero erruduntasuna.

Dendetan sartzen zaidan antsietatea nolabaiteko es- tasi bilakatu zait, eta aldageletara eraman daitekeen prenda kopuruaren muga erraz bikoiztu dut sartu-irten bakoitzean. Kanpoan izan zaitezkeena proiektatzeko gortinadun kapsula indibidualak, aldagelak. Gortina be- ti apur bat zabalik geratzen da gainera, zuk hamaika saialdi egin ditzazun bazterrerantz tira eta tira, biluzta- suna ezkutatzeko baino, inork ez dezan zirrikitutik iku- si zeure buruari ispiluan begiratzeko duzun modua.

Hain iruditzen zait politikoa metro karratu horretan bizi dugun guztia, neure arropak biluztea erabaki duda- la; bakoitza jantzi ahala burutik pasatu zaidan guztia kontatzea. Zenbat arazo sozial zenbatu ditzakezu zure prenden josturetan?

Niki tirantedun beltza, tripa bistan uzten duena: M neurria. Marokon egina. 9,99 euro. Kremailera bat du erdian, guztiz ireki daitekeena. Neronek askatu dezake- dala pentsatzeak morboa eman dit; parrandan edonork aska diezadakeela pentsatzeak, atzerakada. Oroitu, tripa bistan: plazarako ez dizu balio, eta zilborpeko ileekin zer? Sozialki ondo? Orain arte ez dituzu kendu, ez ditu- zulako erakutsi.

Kulero arrosak: L neurria. Sri Lankan eginak. 4,90 euro. *L? Con una M te basta chica.* Ezetz, gero ipurdian sar- tzen zaizkidala, *chica*.

Tutu/hodi formako gona bakeroa (gona tubo): M neu- rria. Bangladeshen egina. 19,95 euro. Apur bat motz ge- ratzen zait, baina boteretsu sentiarazten naute forma honetako gonek. Emakume seduktorearen figuraren baitan sartzen delako agian? Depilatu gabe nago, zen- tzu horretan ez naiz estereotipoan kabitzen. Hartu be- harko dut horretarako ere txanda, neguan erraz egiten

Amancio Ortegaren besoetara salto egin dut eta goiz oso bat pasatu dut konpulstsiboki erosten gaizki ordaindutako eskuek egindako arropa merkea

duzu iraultza, baina udan... Ze deserosoa den etengabe- ko borroka, ezta? Urtetik urtera zentzu horretan indar- tsuago izango zinela sinesten zenuen eta begira orain- dik non zauden. Tira, momentuz galtzarpeko ileetara ohitu zara; beste lur zatitxo bat konkistatua.

Soineko beltz estua, bi lerro zurirekin ertzetan: M neu- rria. Marokon egina. 12,95 euro. Ez dio irudimenari lan handiegirik ematen, oso estua da. Polita da, baina ez da- kit ausartuko naizen honekin kalera ateratzera.

Filial esplotatzaileen katakonbatatik Donostiako kale garestietako gortina osteetara iristen diren arropen pisu hori, soinean nola eusten diogun ere ulertzen ez duda- na, kalkulatu ezinik uzten nauena X,95 euro horietatik zenbat ordaintzen duen nire barruko zapaltzaileak eta zenbat zapalduak. Eta hau, aspaldiko ederren sentituz. •